

Eagle modulutik kanpo 2 ordu eman zituzten egin beharreko lan guztiak betetzen eta, ondoren, 4 ordu eta 20 minutuko loaldi bat egin zuten moduluan. Ilargiratu eta 13 ordura, Ilargia orbitatzen ari zen Columbia modulurantz abiatu ziren, Lurrera itzultzeko.

Ilargia lehenengo aldiz zapaldu zuen lehenengo pertsona *I esploratzailea* izan zen, **1969**ko uztailaren 21ean, ilargiratu eta 6 ordu eta erdi geroago.

Estatu Batuek ilargira joateko prestatutako espazio-bidaia tripulatua izan zen Apollo 11 misioa. **1969**ko uztailaren 16an espazioratu zen NASAREN Floridako Kennedy Space Center-etik. Jaurtiketarako Saturn V suziria erabili zuten, eta uztailaren 20an ilargiratu ziren.

Bidaia hau gizadiaren historian momentu esanguratsuenetarikoa izan zen bai historikoki bai teknologikoki.

Ospe handiena hiru astronautek lortu zuten arren, izugarrizko talde-lana izan zen, eta bultzada teknologiko handia ekarri zuen gizadi osoarentzat. Garapen-lanetan milaka langile, zientzialari eta ingeniari aritu ziren. Bat aipatzearren, Margaret Hamilton ilargiratze-moduluaren eta Apollo espazio-ontzien ordenagailuaren sistema eragilea eta programa guztiak idatzi zituen taldearen zuzendaria izan zen.

Lehenengo aldiz ilargiratu zen bidaia izan zen, eta arrakastatsua gainera. Bi pertsonak ilargiaren azala zapaltzeaz gain, esperimenduak eta froga zientifikoak egin zituzten. Eta Lurrera onik bueltatzea lortu zuten.

Tripulazio kideak hiru ziren: *I esploratzailea*, *II esploratzailea* eta *III esploratzailea*. *II esploratzailea* Ilargi moduluaren pilotua zen eta *III esploratzailea* ilargiaren orbitan kontrol moduluaren pilotua. *I esploratzailea*, aldiz, bidaiaren komandantea zen.

Ilargiratzeko bi espazio ontzi erabili zituzten: "Eagle" ilargiratzeko modulu eta "Columbia" agente-modulu orbitatzailea.

Bidaiaren helburu nagusietariko bat Ilargiak argi propioa zuen edo ez ikertzea zen.

Ilargian harriak jaso zituzten Lurrera ekartzeko asmoz; guztira, 22 kilogramo harri. Sismometro eta laser erreflektore bana ere instalatu zituzten: lehena,

Ilargiko seismoak eta meteorito jauziak neurtzeko eta jasotzeko; eta erreflektorea, aldiz, Lurraren eta Ilargiaren arteko distantzia zehatz-mehatz neurtzeko.